

# Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA  
2008ko NEGUA

## BERRBA Lapiko



"Dastatu euskararen  
lapikoa"

ETXEBARRIKO  
EUSKALDUNEN  
LAPIKOA JAIO DA

eta gainera....

- haur eskolaren historia
- euskarazko izenen jatorria
- horoskopoa
- denbora-pasak
- ... eta gauza gehiago



**ULIBARRI**  
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Sela  
Departamento de Cultura



## berbalapiko proiektua, etxebarriko euskaldunen topagunea

Aspaldi zebilen ahoz aho herritik, horrelako egitasmo bat sortzeko behar handia zegoela Etxebarri, euskaldunak bateratzeko eta ahal den neurrian euskaraz bizi ahal izateko. Izan ere, askotan gertatzen zaigu ez dugula gehiago hitz egiten euskaraz ez dakigulako nortzuk diren euskaldunak. Eta ez gara ausartzen.

Modu honetan, gure aisialdiko denbora pixka batean euskaraz arituko gara, hobeto ala txarrago, hanka sartuz ere, baina, garrantzitsuena, euskaraz gozatuz.

Horretarako Etxebarriko Udalak ulibarri Euskaltegiaren bidez abian jarri du Berbalapiko proiektu hau. Arduradunek esaten duten bezala, ez da euskara ikasteko kurtso bat, baizik eta, oinarrizko maila izanik, aisialdiarekin lotuz euskaraz hitz egiteko aukera eskura jartzea.

Hortaz, euskaraz bizi nahi duten guztiek har dezakete parte egitasmoan; hala nola, euskaldun berriak, euskaldun zaharrak, euskaraz hitz egiteko ohitura galdu eta berreskuratu nahi dutenek, besteei laguntzeko prest agertzen direnek....

Eta horren helburua, jakina, Etxebarriko kaleetan euskararen presentzia areagotzea eta euskaraz bizitzen gozatzen laguntzea.




Proiektuaren inguruko informazioa blog batean jarriko dute, baita datozen ekitaldien agenda ere. Hauxe da helbidea:

[www.blogari.net/berbalapiko](http://www.blogari.net/berbalapiko)



## Etxebarriko haur-eskolaren ibilbidea



1976. urtean hasi ziren emakumeak lan-munduan eta, haiek lan egiten zuten bitartean, leku bat behar zuten umeak uzteko. Horretarako, Etxebarriko parrokiak gela bat utzi zuen. Hantxe umeek jolastu ez ezik heziketa jaso ere egiten zuten. Aldi berean, gurasoek, Haur-eskola elkar-teak "San Esteban" izenekoa osatu zuten.



Era berean, denbora pasa ahala, umeen kopurua handitu egin zen eta hantxe bertan gela bat zabaldu zen umeentzat. Izan ere, bi andereño jarduten zuen eskolak ematen. Beren lan baldintzak nahiko eskasak ziren. Horretaz gain, denetarik egiten zuten; adibidez, eguneroko gelen garbiketa. Hala ere, ilusio handiz ematen zituzten eskolak. Handik gutxira, lekua txiki geratzeaz gain, gela batean lurraren erdiko partea tutu antzeko bat

izango balitz bezala altxatu zen. Umeek jolaserako erabiltzen zuten.

Geroztik, gurasoen elkarteak erabaki zuen egoeraren berri ematea udalari. Gainera, elizak epe bat eman zuen handik alde egiteko eta epe hori amaitzeaz zegoenean udalari beste leku bat eskatu zitzaion.

Denbora gutxi pasatu gabe, udaleko leku batera pasatu ziren; pilotalekuaren ondoan dagoen gelara, hain zuzen ere. Hortik aurrera, bi ekintza batera ordu ezberdinetan tartekatzen zen. Azkenean futbol-taldea kexatu egin zen; horren ondorioz antzinako denda batera joan ziren.



Bazirudien leku hori udalak erositakoa zela. Lekua, berez, iluna zen atzealdean, nahiz eta erakusleiho bat zuen aurrealdean. Hormak kolore



argiz, berdez, hain zuzen ere, margotu ziren eta irudi formak gehitu zitzaizkien, olatuan edo, argitasuna eman nahiean. Horrekin batera, garbiketa sakona egitea beharrezkoa izan zen eta hala egin genuen, txukun-txukun geratu arte.

Handik gutxira, Barandiaran eskolako bi gela hutsik geratu ziren. Gela hauek gaur egun Zahar Etxea dagoen tokian zeuden. Gela horietara futbol-zelaitik sartzen ziren. Udalak proposatu zuen hara joatea. Hura zen poza! Izan ere, gela haiek benetako eskolak ziruditen; alde batetik, klaseak argitsuak ziren eta neurri aldetik egokiak; bestalde, jolastokia zegoen. Hots, umeak futbol-zelaira joan zitezkeen. Horretaz gain, aita batek kartoizko etxe handi bat oparitu zuen umeek jostailuak sar zitzaten.


Umeen eta hezitzaileen pozak iraun zuen uholdeak iritsi ziren arte, 1983ra arte, hain justu. Hondamendi itzela izan zen. Haur-eskola lokatzez bete zen. Lanak izan ge-

nituen jostailu guztiak eta ahalik eta material didaktiko gehiena ondo ateratzeko. Lokalak berriro egokitzeko, hezetasuna lehortzeko eta jarraian margotu ahal izateko denbora luzea itxaron behar izan genuen.

Horren ondorioz, haur-eskola itxita. Denbora laburrean mezu bat jaso genuen udaletik esanez beste leku bat izango genuela. Izan ere, une horretan Etxebarriko Anbulategian medikuen pisuak hutsi zeuden eta hara aldatu ziren.



Egitura aldetik pisua oso ondo zegoen; batetik sarrerak ez zuelako eskailerarik; bestetik, oso handia zelako. Horrez gain, sukaldea zeukan, beraz, aukera hori aprobetxatu zuten umeei bazkaria emateko. Leku horretan urte batzuk eman zituzten, udalak Haur-eskolarako egoitza berria egokitu zuen arte.





A  
B  
C

Urte batzuk pasa ondoren, Udalak Altos Hornos enpresari Bekosolo Parkea erosi zion; hori dela eta, Udalak aukera eman zuen hango txaleten

arteko bat Haur-eskola bezala erabiltzeko. Txaletak bi solairukoak ziren gehienak, bat izan ezik. Umeentzat egokiena zelakoan, horixe aukeratu zuten.



Geroago, udaleko arkitektoari esker, gure Haur-eskolako planoak egin zituzten; hala nola, zenbat gela, sukaldea nin jarri, lo egiteko gelak nola, ume txikientzako komunak, berogailua lurrean, baldosaren azpian eta abar. Obrak amaitu ostean gure Haur-eskola Bizkaiko onenetarikoak bihurtu zen, zituen baliabideengatik eta kokapena aparta izateagatik. Hitz batez, ezin hobea zen.



Han zenbait urte pasa ahal, ondo baino hobeto gozatu zuten Haur-eskolaz. Gure Haur-eskolako helburua ia-ia betetzear zegoen, andereñoen lan-baldintzak hobetzea baino ez zen falta. Egia esan, itxaropena ez da inoiz galtzen eta pentsatu genuen egunen batean lortuko genuela. Lauzpabost urte pasa eta gero, krisia zela-eta, Haur-eskola kaltetuta geratu zen. Diputaziotik jasotako dirulaguntza desagertu egin zen. Udalaren dirulaguntzarekin soilik ezin izan zen Haur-eskola aurrera eraman. Ondorioz, porrot egin zuen eta umeentzako txalet izugarri hura itxita geratu zen. Horrekin batera, andereñoak kale gorrian geratu ziren.

Bi urte pasatu ondoren, udalaren bidez, haur-eskolarako txaleta Barandiaran eskolarako zabaldu zen. Atsegin handiz hartu izan zen albiste hori. Modu horretan, behintzat, Etxebarriko umeek etekina aterako zioten berriro.

Urte batzuen buruan, Eusko Jaurlaritzak Udalekin batera, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban Haur-eskola berriak zabaldu nahi izan zituen. Horri esker, gaur egun, Etxebarri badu berriro bere Haur-eskola, Bekosolo parkean, hain zuzen ere. Aipatzekoa da gaur egungo Haur-eskola, eraikuntzaren aldetik ez dela lehen bezalakoa. Espero dezagun, denboraren poderioz, behin-goiz, gure helburua betetzea.



# 500 urteko herria



500 urte joan dira Etxebarriko Galdakao izateari utzi eta elizate propioa izatera pasatu zenetik. Hona hemen zenbait datu historiko:

Etxebarri XIV. mendea arte Galdakako Andra Mariako parrokiaren menpe zegoen. 1509. urtean; hau da, orain 500 urte Etxebarriko Doneztebe elizatea independente gisa eratu zen. Gliza Kukuiagan zegoen eta han igandeetan mezatara joan ondoren, herritarrek haien azaroei buruz hitz egiten zuten: azpiegiturak, basoen mantentzea, justizia, karitatea, hezkuntza eta erroldak besteren artean.



Kori dela-eta, Udalak urtean zehar aipatutako 5. urteurrena ospatu nahi du. Abenduaren 26an, Doneztebe egunean hain zuzen, hasiera emango zaio urte gogoangarriari. Harrezkero, eta hilabete amaiera guztietan, zenbait jardueraz gozatzeko aukera izango dugu. Adibidez, Etxebarriko historia mintzagai izango duen liburua kaleratuko da, argazki erakusketa antolatuko dute, aitite-amamak eskoletara joango dira orduko pasadizoen berri emateko, futbol partida berezia izango da... Kala ere, ezinbestekoa izango da herritarren parte-hartzea jarduera berriak antolatu edota laguntzeko.

Animatu laguntzera eta ideiak proposatu!

# IZENAK BIZITZA GUZTIRAKO IZATEN DIRA, EZTA?

## ETXEBARRI = XABIER

Bazenekiten xabier eta Etxebarri leku beretik datozela? Bai, hala da. Eboluzio fonetikoaren emaitza da **[(e) (t) xebar (i)]**

Zaila badirudi ere, gauza bera gertatu da beste izen batzuekin historian zehar. Orri honetan ezin dugu izen guztien azalpena eman; horregatik azken urteotan umeentzat gehien aukeratu diren izenen artean honako adibide hauek ikertu ditugu:

### Neskak

#### Izaro

Bermeoko (B) uhartea eta Andre Mariaren antzinako basiliza. XVII. mendean frantziskotarren komentua izan zen bertan. Magdalena egunean Izarora joaten dira bermeotarrak eta, beren jabegoa azaltze aldera, uretara teila bat botatzen dute. Kondaira baten arabera monasterioko fraile lego bat Kanalako neska batez maitemindurik omen zegoen eta gauero joaten omen zitzaion bisita egitera, igeriketan, neskak piztutako argia lagun. Komentuko abadeak frailearen ibileren berri izan omen zuen, eta, ekaitz gau batean, argia labarretan piztu omen zuen eta maitale gaixoa bertan ito.

#### Irati

Nafarroako oihan ederra, ibaia eta Andre Mariaren basiliza. 1954an antzinako gotorleku baten gainean eraiki zen Elurretako edo Iratiko Ama Birjinaren ermita ugalderearen aldamenean dago.

#### Ane

Sabino Aranak eta Koldo Elizaldek argitaratuko *Santu Izendegia*-n gaztelaniazko *Ana*-ren baliokidetzat ematen den arrakasta handiko izena. Gaur egun euskaldunon artean *Ana* baino gehiago erabiltzen da. Baliokideak: *Ana* (gaz.) eta *Anne* (fr.). Ikus *Ana*.

#### Ilazki

Zaraitzu (N) aldeko hitz honek 'ilargia' adiera du. Honela esan ohi da: "*Ilazki amandrea zeruan zer berri?*". Zenbait tokitan *Marigorri* ezizena du. Ikus *Ilargi*.

### Mutilak

#### Lander

Bi termino batzen dira honetan: 'behartsua, erromesa' adiera zuen Erdi Aroko lander (cf. Oihenarten atsolitz hau: "*Gaztaro alferrak dakarke zahartze landerra*") eta gaztelaniazko *Leandro*-ren baliokidetzat *Sabino Aranak eta Koldo Elizalde* argitaratuko *Santu Izendegia*-n proposatutako *Lander*. *Leandro* grezierako *Leandros*-etik dator, latineko *Leandrus* bitarteko dela. Greziako mitologian *Leandro* Afroditarren tenpluko *Ero*-z maitemindu zen eta gauero joaten zitzaion igerika, gau batean gidaritzat zuen argia itzali eta ito zen arte.

#### Ekain

Zestoa eta Debaren (G) artean dagoen haitzulo ezagunaren izena. 1969an bertan aurkitutako margoak paleolitikoko ikusgarrienetakoak dira Euskal Herrian.

#### Urtzi

Jainkoaren euskal izen zaharra. XVII. mendeko Zalgize idazlearen ustez zeruaren deizio zaharra zen. Hemendik sortu dira *Ortzadar*, *Oskarbi* eta beste. Aurreneko aipamena XII. mendeko *Codex Calixtinus*-ekoa da, non Compostelako Donejakuera joateko bidea aurrenekoz deskribatzeaz gainera euskarazko lehen hiztegitxoa ere biltzen baita: "*Barbara enim lingua penitus habentur. Deum uocant Urcia (...)*". Horretaz gain, Euskal Mitologiako izakia ere bada, ekaitza eta harria ekartzen dituena, zenbait lekutan Hodei izenez ezagutua. Aldaera: *Ortzi*


ETA ZUEK BADAKIZUE NONDIK DATOZEN ZUEN IZENAK???????



# GURUTZEGRAMA LEHIAKETA

## EZKER ESQUIN


- 1.- Soluzio, soluziobide. 2.- Epaitzen dutenak. Boroa. 3.- Pagotxa. Nafarroako herrixka. 4.- Erbioa. Bihurriak. 5.- Toka, nuen. Infusio mota. Bat. 6.- Tona. Urtaro beroa. Kontsonantea. Azkenekoa. 7.- Sakonera. 8.- Bizkaieraz, ile. Ekialdeko borroka mota. 9.- Aitzin, aurrealde. Sanferminetako martxa ezaguna. 10.- Potasioa. Hondakina. Kontsonantea.



## GOITIK BEHERA

- 1.- Adoretsuak, gartsuak. 2.- Erregalia. Sexu eme. 3.- Nauka. Egokiera, parada, beta. 4.- Pikoak ematen dituen arbola. Hizki grekoa. 5.- Burdinolak. Zital, odoltzale. 6.- Neoia. Interjekzioa. Herri hizkeran, eta. Röntgen. 7.- Irrigarri. 8.- Izua, beldurra. Putrea. 9.- Bostehun. Musika nota. Tentea 10.- Ebakidura. Naizen honek

Bete gurutzegrama eta entregatu euskaltegian.



Gurutzegrama ondo betetzen dutenen artean urtebeteko 2 harpidetza zozketatuko dira LUMA aldizkarirako.

# EGUZKILOREA

Orain dela urte asko lurtean gizakia bizi zen, eta ilunpetan bizi zen eguzkirik eta ilargirik ez zegoelako. Gizakiez gain, mamuak, sorginak eta zaldi hegalariak zeuden.

Izaki hauek beldurgarriak ziren eta horregatik Amalurrari eskatu zioten laguntza. Babesa eskatu zioten baina Amalurrak ez zien kasurik egin. Hala ere, azkenean bere laguntza ematea erabaki zuen.

Eta Lurra Ilargia sortu zuen.

Hasieran, gizakiak izutu ziren baina erraz ohitu ziren. Izaki beldurgarriak ere, azkar ohitu ziren eta Gizakia erasotzen jarraitu zuten.

Gizakiak Amalurrarengana joan ziren berriro laguntza eske.

Amalur -esan zioten- eskerrak ematen dizkizugu ilargia emateagatik, baina ez da nahikoa, zerbait indartsuagoa egin dezakezu?

Orduan lurra eguzkia sortu zuen.

Nahiz eta eguzkia oso handia eta beroa izan, asko kostatu zitzaien ohitzea; alde onak ere bazituen, landareak eta zuhaitzak azkar hazten ziren, adibidez.

Goizez mamuek ez zuten erasotzen, baina gauez bai.


Berriro gizakiak lurarengana laguntza eskatzera joan behar izan zuten.

-Gauez arazo bat dugu eta beste konponbide bat nahi dugu, mamuak eta sorginak ateratzen baitira gu beldurtzera.

Eta Amalurra oso adeitsua zenez, Eguzkilorea sortu zuen.

Hau, oso argitsua zen eta mamuak eta sorginak beldurtzen zituen.

Gaur egun gure artean daukagu, ekaitzetatik eta gaixotasunetatik babesteko.



# HOROSKOPOA



## **ARIES** (martxoaren 22tik apirilaren 21era)

**amodioa:** Bihotza apurtu badizute, lasai!!zorte ona edukiko duzu astroak zure alde daudelako.  
**dirua:** Ez zaitetz arriskatu, ez duzu loterian jokatu behar.  
**osasuna:** Gehiegikeriak egin ahal dituzu baina kontuz ibili hotzarekin, zure eztarria txarto baitago.  
**asteko eguna:** Larunbata.  
**ondo:** Geminisekin.  
**txarto:** Taurorekin.



## **TAURO** (apirilaren 21etik maiatzaren 22ra)

**amodioa:** Zabal itzazu begiak! Ez al zara konturatzen zure bikotea hurbil dagoela?  
**dirua:** Kontuz ibili zure aurrezkiekin, garai txarrak etorriko direnez, aurrezki horiek beharko dituzu.  
**osasuna:** Zaintzen hasi beharko duzu, "Gabonak" ez dira garairik onenak horretarako!!  
**asteko eguna:** Igandea.  
**ondo:** Virgorekin.  
**txarto:** Ariesekin.



## **GEMINIS** (maiatzaren 22tik ekainaren 23ra)

**amodioa:** Ez zaitetz lotsatia izan eta aurreratu zaitetz!! Bilatzen ari zaren pertsona aurrean daukazuna da!!!  
**dirua:** kontuz ibili zure lankideekin, salduko zaituzte eta arazo larriak edukiko dituzu.  
**osasuna:** Zezen baten osasuna daukazu, horregatik, aprobetxatu behar duzu.  
**asteko eguna:** Ostirala.  
**ondo:** Ariesekin.  
**txarto:** Eskorpiorekin.



## **CANCER** (ekainaren 23tik uztailaren 22ra)

**amodioa:** Zure bikotearekin eztabaidatuko duzu.  
**dirua:** Ate asko irekiko dizkizun bidaia bat egingo duzu.  
**osasuna:** Egin ezazu kirol asko, ondo sentituko zara.  
**asteko eguna:** Astelehena.  
**ondo:** Librarekin.  
**txarto:** Taurorekin.



## **LEO** (uztailaren 23tik abuztuaren 23ra)

**amodioa:** Lasai ezazu zure gorputza, beste sexuko pertsona horrekin lasaiago joan behar duzu.  
**dirua:** Kontuz hipotekarekin, krisiak eragina izan dezake zuzan ere.  
**osasuna:** Hitz egin ezazu zure bikotearekin dituzuen arazo sexualak konpontzeko.  
**asteko eguna:** Asteazkena.  
**ondo:** Geminisekin.  
**txarto:** Librarekin.



## **VIRGO** (abuztuaren 24tik irailaren 23ra)

**amodioa:** Momentua heldu da, azkenean lortu duzu baina jar zaitetz bere lekuan.  
**dirua:** Ezer ez da aldatuko zure lanean baina kontuz ibil zaitetz nagusiaren semearekin.  
**osasuna:** Egin ezazu igeri komenigarria deklako zure bizkarreko minak sendatzeko.  
**asteko eguna:** Osteguna.  
**ondo:** Librarekin.  
**txarto:** Akuariorekin.

# HOROSKOPOA



## **LIBRA** (irailaren 23tik urriaren 23ra)

**amodioa:** Zure bikoteak utziko zaitu.

**dirua:** Lanean oso ondo ibiliko zara, ideia berri asko dituzu eta zure lankideek asko eskertuko dute.

**osasuna:** Arlo honetan pataz ibiliko zara, zaindu bizkarra eta lepoa.

**asteko eguna:** Osteguna.

**ondo:** Aquariusekin.

**txarto:** Piscisekin.



## **ESCORPIUS** (urriaren 23tik azaroaren 22ra)

**amodioa:** Zorte ona edukiko duzu norbait berria sartuko delako zure bizitzan; adi egon!!

**dirua:** Kontuz ibil zaitez zure nagusiarekin beharbada zure lanean pertsona batzuk soberan daudelako.

**osasuna:** Egin ezazu virola baina kontuz eguraldiarekin gaixorik ez jartzeko.

**asteko eguna:** Astelehena.

**ondo:** Ariesekin.

**txarto:** Taurorekin.



## **SAGITARIUS** (azaroaren 22tik abenduaren 22ra)

**amodioa:** Urteko asterik onena izando da beste sexuarekin. Nahi duzuna egin ahal izando duzu.

**dirua:** Bila ezazu beste lan bat. Lanean amodioan bezala, zorte ona edukiko duzu.

**osasuna:** Zoaz sendagilearengana zure sorbaldako mina begiratzera.

**asteko eguna:** Asteartea.

**ondo:** Leorekin.

**txarto:** Capricorniusekin.



## **CAPRICORNIUS** (abenduaren 22tik urtarrilaren 23ra)

**amodioa:** Zure familiak arazo batekin lagunduko ditu, fida zaitez haietaz.

**dirua:** Enpresari ona izando zara ideia onak edukitzeagatik.

**osasuna:** Aste honetan bizkarreko mina edukiko duzu, kontuz ibili esertzeko moduarekin.

**asteko eguna:** Igandea.

**ondo:** Piscisekin.

**txarto:** Geminisekin.



## **AQUARIUS** (urtarrilaren 23tik otsailaren 21era)

**amodioa:** Bikotea badaukazu bera entzuten saiatu, beharbada arazoren bat dauka. Bikoterik ez badaukazu, aste honetan begirada guztien erdigunea izando zara.

**dirua:** Lankide bat zure ideiak kentzen saiatuko da.

**osasuna:** Kontuz ibili asteburuko gehiegikeriekin.

**asteko eguna:** Astelehena.

**ondo:** Librarekin.

**txarto:** Taurorekin.



## **PISCIS** (otsailaren 21etik martxoaren 22ra)

**amodioa:** Oso ondo egongo zara zure bikotearekin nahiz eta lagun baten bekaizti izando zaren.

**dirua:** Urrun heldu nahi baduzu lan gehiago egin beharko duzu.

**osasuna:** Oso ondo sentituko zara baina erretzeari utzi beharko diozu.

**asteko eguna:** ostirala.

**ondo:** Taurorekin.

**txarto:** Librarekin.

# UMEEEN TXOKOA

## Indioek bezala

Badago jende asko umearekin euskaraz hitz egiteko beharra duena baina ideiarik ez daukana. Hona hemen "Umeen Txokoa". Zenbait esapide zuen umeei euskaraz berba egiteko. Guk lortu badugu, zergatik ez zuek?

## ZENBAKIAK

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar.

### Zein da zure telefonoa?

-Sei bederatzi sei, bost lau, lau hiru, bat bat (696544311)

### Nola jartzen dira zenbakiak?

- Mendi BAT (ez esan BAT mendi)
- Bi mendi
- Hiru mendi
- Lau mendi
- ...

### Noiz da zure urtebetetzea?

- Abenduaren 26an, irailaren 15ean...

## AGINDUAK

- Etorri hona!
- Eman eskua!
- Egon isilik!
- Egin motxila!
- Ez egin borroka!

## GALDERA BATZUK

Nola esaten da "calcetín" euskaraz? "Galtzerdi" esaten da.

Zer da hau? Hori boligrafoA da

Non dago Etxebarri? Etxebarri BizkaiaN dago

Nor zara zu? Ni Pintxo naiz



## ASTE GUNAK

- Astelehena - Futbola
- Astearte - Musika
- Asteazkena - Igerilekua
- Osteguna - Soinketa
- Ostirala - Amantala estera
- Larunbata - Parkera
- Igandea - Atsedean hartu

## HILABETEAK

- Negua Azaroa
- Abendua
- Urtarrila
- Otsaila

## ABESTIAK

### Sorgina Pirulina

erratza ganean,  
ipurdia zikina  
kapela buruan.  
Sorgina!, sorgina!  
ipurdia zikina!  
Tentela zara zu?  
Ezetz harrapatu!!



## ETXERAKO LANAK

- Bi gehi bi =  $2 + 2$
- Bi ken bi =  $2 - 2$
- Bi bider bi =  $2 \times 2$
- Bi zati bi =  $2 : 2$

## HAMAIKATXO HITZ

- Laztana, bihotza.
- Ama, aita, semea, alaba...
- Zorionak!
- Kaixo, agur, ikusi arte



## HAU GUZ(T)IA

Erakusle bat *guzti* hitzarekin egokitzen denean, euskal testu zaharretako joskeran erakuslearen ondoren etortzen zen beti *guzti*, eta *hau guzior*, *hau guztiau* bezalako moldeak alde batera utzirik, *guzti-k*

artikulua eta erakuslearen kasu atzizki bera hartzen zuen, adibidez:

*Ethorriko dirade gauza hauk guziak nazione hunen gainera* (Lc, Mt 23,36).

*Liburu hau guztia duk bi partetan berezten* (Etxeberri Z MD/ 5).

*Egun a guztia bapere bekatu gabarik emoteko* (An<sup>ib</sup> EL2 90).

*Teresak konbentu barri oneek guztiok [...] eginda, bialdu zituban bere semiak eta alabak Pranzijara* (Bartolome II 296).

Orobat erakuslea izenordain gisa ari denean:

*Baina haur guzia egin izan da konpli litezenzat Profete'n Skriptura'k* (Lc, Mt 26, 56).

*Orietan guzietan bat banaka konsiderazio andiarekin pensatuaz* (O. de Arin 70).

*Au guzia dakizula, zorakeria oriekin<sup>~</sup> zabiltza?* (Agirre A III 530).

*Ez oraino horiekin guziekin etzuken merezi zeruko zoriona* (Duhalde 172).

Geroago, Hegoaldean, *guzti hau*, *guzti haietan* bezalako joskerak agertzen hasi ziren. Lehen agerraldia, XVIII. mendean bakarra, antza denez, Ubillosena da: *Zer esan nai du guzi onek?* (199). XIX. mendean eta XX.aren lehen erdialdean gero eta gehiago ikusten dira joskera hauek, eta azken urteetan, jakina denez, gutxi dira joskera zaharrari eusten diotenak. Azpimarratu behar da aldakuntza hori Hegoaldean soilik gertatu dela, eta ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrean zegoen batasuna hautsia gertatu dela. Hortaz,

**Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du *hau guz(t)ia*, *bide hartan guz(t)ian*, *horiekin guz(t)iekin* eta *kidekoak hobestekoak direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guz(t)iak* eta *honen kidekoak*.***

**Beraz, *hau guz(t)ia* eta *guz(t)i hau* esapideen artean, lehena**

**da hobesten dena. Eta berdin gertatzen da *bide hartan***

***guz(t)ian* / *bide guz(t)i hartan*, *horiekin guz(t)iekin* / *guz(t)i horiekin***

**eta hauen antzeko bikoteetan. Denetan lehen aldaera da hobestekoa.**

**Hala ere, *hau guz(t)ia* eta *hori guz(t)ia* formekin batera *hau***

***guz(t)iau* eta *hori guz(t)iori* ere oso bidezkoak dira (ez, ordea, \**gizonau***

**bezalakoak, jakina). Halaber, *hauek guz(t)iok*, *horiek***

***guz(t)iok*, (*gauza*) *hauek guz(t)iak*, *horiek guz(t)iak* eta *haiek***

***guz(t)iak* formak.**

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)

# Etxebarriko Euskaltegian

euskara

zure esku

2008

2009

euskera

en tu  
mano



Etxebarriko Euskaltegia

Bekosolo parkea z/g

Etxe horia / Casa Amarilla

Tel/Fax 94 426 28 02

[etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)



**YLIBARRI**  
EUSKALTEGIA